

B

JARDUERA TXOSTENA

2014

FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALenciAGA FUNDazioA

B

AURKIBIDEA

2014KO EKITALDIA – AURKEZPENA	4
BILDUMAK	7
ERAKUSTAK	9
HEZKUNTZA	14
BESTE JARDUERA BATZUK	20
KOMUNIKAZIOA/BISTARIAK	23
DATU EKONOMIKOAK	26

Fundación Cristóbal Balenciaga Fundazioa 1999an sortu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatuta dago (F-91 zenbakia), eta bere helburua Cristóbal Balenciaga Eizaguirre moda-sortzaile getariarraren ekarpen eta dohainek modaren, goi-mailako joskintzaren eta jantzien diseinuaren munduan izan duten eragina ezagutaraztea, zabaltzea eta indartzea da.

Honako erakunde publiko hauek dira Fundazioaren Patronatuko kideak:

- Gipuzkoako Foru Aldundia (bi ordezkari)
- Eusko Jaurlaritza (bi ordezkari)
- Kultura Ministerioa (bi ordezkari)
- Getariako Udala (ordezkari bat)

Horiez gain, esparru pribatuko beste kide batzuek osatzen dute Fundazioko Patronatua; besteak beste, ACMEko (Espainiako Moda Sortzaileen Elkarteak) ordezkari batek eta hiru kide pribatuk.

Fundazioaren ohorezko kargudunak honako hauek dira:

- Ohorezko presidentek Espainiako errege-erreginak
- Presidente fundatzailea Monsieur Hubert de Givenchy

Fundazioak aurretik adierazitako helburuak lortzeko duen tresna nagusia Cristóbal Balenciaga Museoa da, Fundazioak bera kudeatua. Museoa 2011ko ekainaren 6an zabaldu zituen ateak, Getarian.

B

2014KO EKITALDIA

Aurkezpena

B

CRISTÓBAL BALENCIA



2014ko ekitaldia Fundazioaren barne-antolaketa egokitzeko eta antolatzeko garaia izan da. Aldaketa sakonak egin dira antolaketa-organigraman –besteak beste, Cristóbal Balenciaga Museoaren zuzendaritzan bertan, maiatzetik aurrera–, eta jarraipena eman zaio 2013an abiatutako austeritate eta gastuari eusteko politikari.

Testuinguru horretan, urteko helburu eta erronka nagusia museoaren barne-prozesuak garatzea eta sendotzea izan da, kanporako egiten diren jardueen programazioa mantenduz eta museoaren horizonte estrategikoa eta etorkizuneko hazkunde-eredua abiatuz.

Museorako landutako ikuspegi estrategiko berri honetan lehenetsi ditugun alderdi nagusiek honako gai hauek dituzte ardatz, besteak beste:

Modaren esparruan erreferentziako museo bat izatea:

- Bildumagatik: handitu eta osatu beharrekoa, Balenciagaren lanbide-ibilbidearen lehen 20 urteak, Parisko etaparen aurretikoak, nabarmenduta.
- Erakusketengatik: lerro nagusiak eta monografikoak Balenciagaren lana ulertzen eta testuinguruan kokatzen lagundu behar dute, eta gainera, haren eta lerro osagarriaren ikuspegi berriak deskubritu ez ezik, modaren fenomenoak kultur adierazpen ahaltsu modura, berezko adierazpen-esparruarekin, hurbildu eta ulertarazi ere egin behar dute.
- Ikerketagatik: aztertu eta sakondu beharreko interes-arloak zehaztu behar ditu, eta, ondoren, haien emaitzak jakinarazi eta gizarteratu, erakusketa zein argitalpen bidez.

Museoaren xede hezitzailea betetzea eta areagotzea:

- Hartzaileak –ume zein gazteengan arreta berezia jarrita– modaren alderdi kulturalenetan sentsibilizatuz, bai eta haren erabilerari zein kontsumoari buruzko balioak irakatsiz ere.
- Balenciagaren egiten jakiteari lotutako teknika eta jakintza espezializatuak helaraziz. Horrelakoak eguneratu eta moda garaikidearen testuinguruari aplikatuta betiere, hartzaile espezializatuenei eta profesionalei begira.

Nazioartean proiektzio handiagoa lortzea, nola beste herrialde batzuetako hartzaile espezializatuenen artean (museoa lurraldera turismoa erakartzeko motorra izan dadin), hala destinoan bertan, Euskadira bidaiatzea aukeratzen duten pertsonen museo bera eta haren kultur eskaintza ezagutu ahal izan ditzaten.

Bertako komunitatearekin harremana areagotzea zentzu guztietan, berariazko programazioa proposatuz, inguruko kultur eragileekin elkarlanean arituz, museoari laguntza aktiboa ematen dioten pertsonekin edota Balenciagaren tailerrean lan egin zuten pertsonekin loturak osatuz, besteak beste.

Eraikinean eta instalazioetan eraginkortasun handiagoa lortzea, erabilerak areagotuz eta haien edukierak arduraz hobetuz.

Horrenbestez, urteko neuririk garrantzitsuena, zalantzarik gabe, hauxe da: 2013an une zail eta nahasia bizi ostean, lanean dago oraindik museo, nortasun argiarekin egon ere; zabalik, bizirik eta bertan dago. Etengabeko eraikuntza-prozesua garatzen ari da, eta aktibo handiak ditu (izena, bilduma eta eraikina, adibidez), baita ahalmen izugarria ere, eta ibilbide progresiboa, arrazoizkoa eta egingarria taxutu dugu horretarako, ahalmen hori gauzatzea ekarriko duena.

Miren Vives Almandoz
Cristóbal Balenciaga Museoa Zuzendaria

B

BILDUMA

Paregabeko urtea

CEM 2004. 12

CEM 2004. 14

2014an, Cristóbal Balenciaga Fundazioko bilduman beste lan batzuk sartu dira; gehienak dohaintza moduan, baina beste batzuk mailegu gisa. Lan horiek erakundearen funtsak aberastu dituzte eta bildumari adierazgarritasun handiagoa eman diote Balenciagaren lanari dagokionez.

Janzkeren, dokumentazioaren eta osagarrien bilduma, 400 pieza baino gehiago dituena eta Mrs. Rachel L. Mellon bezero garrantzitsuaren senideek dohaintzan emana, oso gertaera garrantzitsua izan da Cristóbal Balenciaga Fundazioaren historian, ezbairik gabe. Garrantzi kuantitatiboaz gain, haren ekarpen kualitatiboa ere nabarmendu beharra dago, elementu horiek datu baliotsuak ematen baitituzte moda-etxearen lan egiteko moduari zein bezeroekiko harremanari buruz. Halaber, museoaren aurretiko bilduman ordezkari oso txikia zuten elementuak ere badaude haien artean.

BEKAK ETA PRAKTIKAK BILDUMEN SAILAN

Bildumen Sailaren iritiz, ehungintzaren ondarea jorratzen duen kultur erakunde gisa, gure zereginetako bat ezagutza gizartearen onurarako erabiltzea da; horretarako, lantzen dugun arloan interesa duten ikasleei atea irekitzen dizkiegu. Zentzu horretan, praktiketako hiru ikasle eta bi bekadun izan dira aurtan.

IKERTZAILEAK HARTZEA ETA BESTELAKO KOLABORAZIOAK

Cristóbal Balenciaga museoak artxiboak ireki ditu, eta hainbat pieza in situ erakutsi, aztertu eta azaldu ditu nazioarteko itzal handiko erakundeetatik etorritako ikertzaileekin. Erakunde hauetatik, besteak beste: Bard Graduate Center (New York), London College of Fashion, RMIT university, Melbourne edo Paris American Academy University of Delaware.

ONLINE KATALOGOA

EMSIME dokumentuak kudeatzeko online sistema bat da, Eusko Jaurlaritzak sustatua. Euskal Autonomia Erkidegoko museo publiko eta pribatuetako ondasun kulturei buruzko informazioa eta irudiak biltzen ditu.

Museoak bete behar duen zabalkuntza-zereginerako plataforma egokitzen jo denez, museoak bildumei buruzko informazioari eta irudiei alta eman zaie. Zehazki, 2014an, museoak antropologia kultureko funtsei buruzko 847 fitxari eman zaie alta (euskara-gaztelania), eta dokumentazio-funtsei buruzko 387ri.



B

ERAKUSKETAK

Balenciaga, moda eta artea

Idi baterako lau erakusketa aurkeztu dira, museoko erakusketa iraunkorraren osagarri: *Paperezko moda* (2014ko otsaila-martxoa), *Errenazimendu chic-a* (2014ko maiatza-iraila), *Balenciagaren artea* (2014ko maiatza-2015eko apirila) eta *Jostun baten maleta* (2014ko abendua-2015eko apirila). Horrekin batera, museoko eduki batzuk bestelako tokietan egon dira erakusgai, hala nola Espainiaren Berlingo enbaxadan eta Madrilgo Jantzien Museoan.

Erakusketa iraunkorra

BALENCIAGA, LEGATU DENBORAGABEA

Museoaren diskurtsoa bateratzen duen ardatza da, beira-arasa batzuetako edukia aldatuta, ehunak kontserbatu ahal izateko.

Erakusketan, Cristóbal Balenciagaren obraren ezaugarri nagusiak, haren sormenaren garapena eta joskintza-teknikari egindako ekarpen itzelak bistaratu ziren. Erakusketak museoko hiru areto hartu zituen eta 62 piezaz, bozetoz eta Parisko maison-ean egindako desfileen inguruko filmez osatuta zegoen.

Erakusketa honen diskurtsoak Balenciaga Donostian lanean hasi zenetik, Parisen finkatu eta 30eko eta 40ko hamarkadetan erabateko arrakasta lortu zuenera arteko garaia biltzen zuen. Horrez gain, joskintzari teknikaren aldetik egin zion ekarpenaren berrikuspena barne hartzen zuen, baita haren estiloak 50eko eta 60ko hamarraldietan izandako garapenarena ere.



Aldi baterako erakusketak

PAPEREZKO MODA

2014/2/14 – 2014/3/30

Gueñesen (Bizkaia) 50eko hamarkadatik egiten den paperezko soinekoen lehiaketa historikoaren atzera begirakoa zen erakusketa. «Paperezko moda» izenburupean, lehiaketako piezarik azpimarragarrienetako batzuk agertzen ziren, besteak beste, Alberto Sinpatrón, Ion Fiz, Javier Barroeta, Antonio Alvarado, Maria Cle, Mercedes de Miguel, Alicia Rueda eta Roger Blomkvist sortzaileen lanak.

BALENCIAGAREN ARTEA

MUSEO DEL TRAJEKO BILDUMA

2014/4/11 – 2015/4/5

Cristóbal Balenciagaren irudia, modaren eta goi-mailako joskintzaren mundutik harago joanda, sorkuntza artistiko orokorrean kokatzen da. Ebakera-teknikak, diseinuen gama kromatikoak eta lanetan islatzen den maisutasunak argi eta garbi erakusten dute ederki ezagutzen zituela bai artearen historia bai bere jakinduria kulturala osatzen zuten sortzaile handiak.

Cristóbal Balenciagaren lana zehaztu zuten eragin artistiko eta estetiko nagusiak azaldu nahi ditu erakusketak, gaika bereizitako hiru aretotan. Erakusketaren ibilbidean, Balenciagaren sorkuntzen eta Zurbarán, Velázquez, Goya, Sorolla, Zuloaga, Picasso edota Juan Gris artisten eraginaren arteko loturak agertzen dira.

Erakusketa hau Madrilgo Museo del Trajearekiko lankidetzaren emaitza da.



ERRENAZIMENTSU CHIC-A: MODAKO DISEINU ETA ARGAZKIAK

2014/5/9 – 2014/9/7

Erakusketa hau Errioxako Goi Mailako Diseinu Eskolako (ESDIR) irakasleek eta ikasleek mamitutako proiektu akademiko baten emaitza gisa sortu zen. Moda eta Argazkigintza sailek Errenazimentsu garaian margotutako modaren inguruko azterlan berezi bat egiteari ekin zioten.

Hala, moda-espezialitateko ikasleek Errenazimentsu garaiko erretratuetan oinarritutako jantziak eta osagaiak diseinatu zituzten.

Garai hari buruzko dokumentazioa erabiliz eta material alternatiboak ikertuz, koadro bakoitzeko jantzien interpretazioa egin zuten. Jantziak taxutu ostean, margolanak eszenaratu zituzten, eta, ikuspegi garaikidez, argazkiak atera zizkieten.

JOSKIN BATEN MALETA: ENTREDÓS 3.0

2014/12/13 – 2015/4/12

Argazkiak, ebakinak, patroiak... EISA etxearen Bartzelonako egoitzan jostun-lanetan aritutako Pilar Ayerzaren maletan aurkitutakoak eman zien bidea Fiona Capdevila eta Rosa Solano artista katalanei joskintzari eskainitako bizialdi bateko puskak berreskuratu eta interpretatzeko.

Cristóbal Balenciaga lanbidean maisu zelako gailendu zen modako figura handien artean; gaitasun berezia zuen bere sorkarrietan diseinu-arloko berrikuntza kontzeptuala, teknikaren eta materialen ezagutza eta gauzatze perfektua bateratzeko.

Hari horri tiraka, Cristóbal Balenciaga Museoak, erakusketa honen bidez, eta joskintzan aritutako gizon-emakume guztien omenez, joskintzari eta haren bidez Balenciagarekin loturaren bat izan zuten pertsoneri buruzko azterketa eta ikerketa-ildo bati ekin dio, eta datorren urtean garatzen jarraituko du.



Ibiltaritza

ZINEMA, BALENCIAGAREN AMETS BAT

Zinema, Balenciagaren amets bat erakusketa, museoak 2013an sortua eta modasortzaileak hainbat zinema-ekoizpenekin eta artistarekin izan zuen harremana jasotzen duten 62 argazkiz osatua, 2014ko otsailetik irailera Alemaniako hiri hauetan izan da:

- Berlinen, Berlinale garaian, Espainiako enbaxadan (otsailaren 7tik apirilaren 4ra).
- Erfurten, Kulturforumen, apirilaren erdialdetik maiatzaren 25era arte, 2014rako hitzartu genuen kultur trukaketa baten esparruan. Trukaketa horretan, hainbat udal-espaziotan Espainiako kulturaren inguruko ekitaldiak egitea barne hartzen zen.
- Frankfurtan, Cervantes Institutuan, uztailaren 4tik irailaren 30era arte.

JENIOAREN IKUSPEGIA, MAISUAREN TEKNIKA

2014/4/11 – 2015/4/5

Cristóbal Balenciaga Museoaren eta Museo del Traje-aren arteko elkarlan-proiektuaren barruan, bi erakunde hauek beren piezak elkartrukatu dituzte 2014 eta 2015erako, eta hala, erakusketa bana sortu dute.

Museo del Traje-ko aretoetan, Balenciagaren lanaren ezaugarri nagusiak eguneko trajeen, koktel-soinekoen, gaueko soinekoen eta ezkontza-soinekoen bidez agerian jartzen dituen pieza-sorta bat dago, beira-arasa bakoitzean ordena kronologikoan jarrita.

BALENCIAGA EZARTZEN

2014/5/1 – 2014/9/14

Proiektu hau EHuko Arkitektura Fakultatearekin elkarlanean egin genuen eta *La Encartada: moda eta tradizio garaikidearen topaketa* kultur proiektuaren parte zen. Ikasleek, Balenciagaren sorkariak inspirazio-iturritzat hartuz, aulki bat diseinatu eta egin behar zuten. Erakusketa *La Encartada* museoan kokatu zen. Topaketako jarduera gehienak ere han egin ziren –maiatzean, nagusiki–.

A woman with glasses and a scarf is looking at a mannequin. The mannequin is wearing a dress made of eggshells. The background is a plain, light-colored wall.

B

HEZKUNTZA

Modaren kulturari buruzko prestakuntza

Cristóbal Balenciaga Museoko hezkuntza-arloak hiru hezkuntza-eduki mota sortzera bideratu du jarduera batez ere, nori dauden zuzenduta kontuan harturik: eskola-curriculum osatzen duten hezkuntza-edukiak; jendeari oro har (umeei, familiei eta modan modu amateur batez interesaturiko pertsonen) zuzendutako hezkuntza-edukiak, eta jende espezializatuarentzako hezkuntza-edukiak (prestakuntza hartzen ari direnak zein sektoreko profesionalak).

Eduki horiek, 2014an, 1.935 lagunengana iritsi ziren; hortaz, erabiltzaileen kopurua ia % 63 handitu da aurreko urtekoarekin alderatuta. Gehikuntza hori izan da ahalegin handia egin dugulako eskola-programako jarduerak curriculumeko edukiei egokitzeko, eskaini beharreko formatuak dibertsifikatzeko zein eskaintza oro har sendotzeko.

Ikastetxeak

Ikastetxeetarako hezkuntza-programaren helburua hau da: Museoa ezagutzen eta hartaz eta haren edukiaz gozaten laguntzea, parte-hartzeko eta prestakuntzako ekimenen bitartez. Eskaintza hezkuntza mailen arabera antolatuta dago, Haur Hezkuntzatik Lanbide Heziketara bitartean, eta besteak beste, ondorengo helburuak ditu.

Alde batetik, ikastetxeek ikasturteko plangintzan ikasgelatik kanpoko ekintza erabilgarri eta aberasgarriak sartzeko; beste alde batetik, ondare kulturala baloratu dadin sustatzea, eta bereziki, Cristóbal Balenciagaren sormenetik eratorritakoa, haren obrekin harreman zuzena izanda; azkenik, ikasleei Museoko obrekin lotzen dugun esanahia bilatzen eta, obrekin elkarrekintzan arituz, beraien ezagutza eraikitzen laguntzea. Ekintzak hartzaileen hezkuntza-etapetara moldatuta daude, curriculumaren edukietara egokituta, eta jantzien bidez ezagutza bereganatzera bideratuta. Eskaintza honako ekintzek osatzen dute.

- Eskaintza egonkorraren jarduerak: 8 jarduerak eskola-curriculumeko hainbat eduki eta gaitasun lantzen eta osatzen dituzte. Prest daude beti ikastetxeen eskariari erantzuteko.
- Ikastetxe erabiltzaileak: 28
- Ikastetxe erabiltzaileen balorazioa: guztiek gomendatzen dute, eta esperientzia errepikatzeko asmoa ere agertu dute.

Publiko orokorrari zuzendutako hezkuntza-eduki paraleloak

Hezkuntza ez-formaleko ekintzak hezkuntza araututik kanpo egiten dira; ekintza askotarikoak eta ludikoagoak dira. Museoa beste ikuspegi batetik ezagutzea eta edukiak bereganatzeko beste metodo bat erabiltzea ahalbidetzen dute. Ekintzak hartzaileen arabera (haurrak, gazteak, helduak, familiak eta abar) zatitu daitezke eta/edo urte-sasoiaire arabera (asteburuko ekintzak, oporretakoak, eta abar).

HAURRAK ETA FAMILIAK

Ikasleen Aste Santuko, udako eta Gabonetako oporraldiekin bat eginez, Cristóbal Balenciaga Museoak hainbat jarduera antolatu ditu sei eta hamabi urte bitarteko haurrentzat, modara eta, oro har, jantzien mundura gerturatzeko eta ezagutzeko formula gisa. Museoa parte hartzeko aukera ematen duen espazio ireki eta atsegin, ikasteko eta ondo pasatzeko esperientzia baliotsuak izateko leku bihurtzeko ekimenak dira.

Horretaz gain, aurten, familientzako bisita –tailerren eskaintza ezarritu da. Parte-hartzaileek ikusgai dauden jantzi batzuk ezagutzeko eta aztertzeko aukera dute eta, era berean, haien sormena lantzen dute, jarduera praktikoko baten bidez. Esperientzia aberasgarria da eta, etxeko txikienez gain, helduek ere parte hartzen dute.

Bisita-tailerren gaia hiru hilean behin aldatu dugu. Guztira, urte osoan lau ekintza ezberdin egin ditugu. Bisita tailerrak hilean behin egin ditugu eta saioak bi ordukoak izan dira.

MODA ETA DIY KONTZEPTUETAN INTERESA DUTEN PERTSONEI ZUZENDUTA

Helduentzako tailerrak nabarmenki praktikokoak dira, ehungintzako tekniketarako hastapenak jorratzen dituzte, hilean bitan egiten dira –normalean, hileko bigarren eta laugarren igandean– eta museoaren edukia ezagutzeko eta ulertzeko bestelako metodo bat ematea dute helburu. Talde txikitan egiten dira jarduerak, ariketen metodologia parte-hartzaile guztientzat egokituta, eta parte-hartzaileek sortzeko eta esperimendatzeko aukera izaten dute.

2014ko ekitaldian, gai berriak lantzen hasi gara eta, lehengo batzuk egokituz, bi motatako tailerrak sortu ditugu: oinarritzakoak eta aurreratuak. Aukera bikoitz horri esker, iraupen luzeagoko ekintzak egin ahal izan ditugu, bost ordutik zortzi ordura bitartekoak, eduki kopuru handiagokoak. Modalitate aurreratu da, hain zuzen ere, publikoaren artean interes handiena piztu eta erantzun onena jaso duena

- Modalitate guztietan jendearentzat oro har programatutako jardueren kopurua: 24 jarduera urtean zehar; gainera, jarduera bereziak ere egiten dira Aste Santuan, Gabonetan eta udan.
- Parte-hartzaileen balorazioa: 10etik 9ko gogobetetasuna

Publiko profesional eta/edo espezializatua heztea

Publiko profesionalari zuzendutako ekintzen eskaintzak pisu handia dauka hezkuntza-programazio orokorraren barruan, eta profil espezializatuarekin lotutako ezagutzetan, gaitasunetan eta/edo esperientzietan sakontzen laguntzen dute.

MAISU-ESKOLAK ETA/EDO TOPAKETAK

Teoria eta praktikako saioak dira, non modaren sektoreko jarduneko profesional batek hartzaile espezializatuari jakintza, esperientziak eta ikuspegiak eskaintzen dizkien.

Rafael Matias (ehungintza) eta Alfahogar (josteko makinak) enpresen laguntza dugu saio horiek egiteko.

- ELOLA. 2014/1/24–2014/1/26

Miguel Elola moda-sortzaile donostiarrak, Cristóbal Balenciagaren ikasle eta moda arloko hainbat artista handiren kolaboratzaileak (besteak beste, Pedro Rodríguezena), ibilbide luzea egin du moda-sortzaile gisa eta semearekin batera garatutako teknikak eta esperientzak eskaini zituen.

- SINPATRON. 2014/3/22

Alberto Etxebarrietak, Sinpatron moda arloko marka sortu zuen diseinatzaile bilbotarrak, bere ekarpena eman zuen «Paperezko moda» erakusketaren harira. Diseinatzaileak Sinpatron etxearen aurkezpen teoriko-praktiko bat egin zuen.



Ikastaroak

Ikastaro horietan goi-mailako jostuntzako lanbideekin zerikusia duten goi-mailako irakasle espezializatuek teknikak modu intentsiboan ezagutarazten dizkiete ikasle gutxi eta homogeneoei; era horretan, izan ere, ikastaroari zein emandako banakako arretari ahalik eta etekin handiena atera diezaiekete.

BRODATZE TRADIZIONALARI BURUZKO IKASTAROA/
GOI-JOSKINTZAKO BRODATZEARI BURUZKO IKASTAROA

2014/07/04–2014/07/06 (18 ORDU)/2014/07/07–2014/07/11 (30 ORDU)

Irakaslea: Elisabeth Roulleau brodatuetan espezialista da. Parisko École Lesage ospetsuan brodatze tradizionala eta goi-mailako jostuntzako brodatzea ikasi zituen, eta Lyonen duen antegian brodatzaile profesional gisa egiten duen lana irakaskuntzarekin uztartzen du egun. Besteak beste, honako institutu eta eskola hauetan eman ditu brodatzeko ikastaroak: Londresko Central Saint Martins College of Arts and Designs izenekoan, Europako Diseinu Institutuaren Italiako zein Espainiako egoitzetan, Holandako ArtEz eskolan, Düsseldorfeko eta Municheko AMD Akademie Mode & Design ikastetxean, Parisko IFM Institut Français de la Mode institutuan eta Milango Accademia Teatro alla Scalan. Hainbat prototipo egin ditu Hermés etxearentzat, bai eta modeloak sortu ere hainbat diseinatzailearentzat; hala, Chanel eta Dior etxeekin aritu da elkarlanean, eta lorpen profesional handienetakotzat jotzen ditu kolaborazio horiek.

TINDAGAI NATURALAK IKASTAROA

2014/10/03–2014/10/05 (20 ORDU)

Irakaslea Ana Roquero izan zen. Roquero Arte Ederretako San Fernando Erret Akademian (Madril, Espainia) ikasia da eta A. Schuttenen lantegian (Breujeuls, Frantzia) osatu zuen bere prestakuntza artistikoa eta ehungintzakoa, bai eta N. Frederiksen-en lantegian (Altea, Espainia) eta CIETAn, Centre International d'Étude des textiles Anciens-en ere (Lyon, Frantzia), besteak beste, eta oihal historikoetako tindagaien ikerkuntzan eta identifikazioan espezializatua da. Hainbat lan argitaratu ditu eta gaiaren inguruko erakusketa ugaritan aritu da komisario; aipatzeko modukoenak dira Errege Lorategi Botanikokoa (Madril, Espainia), Museo Arkeologiko Nazionalekoa (Madril, Espainia), eta/edo Ehungintzaren Dokumentazio Zentro eta Museokoa (Terrassa, Espainia).

Ikastetxe espezializatuekin elkarlanean bultzatutako proiektuak

Museoaren eta ikastetxe espezializatuen arteko elkarlan-proiektuak dira; Cristóbal Balenciaga eta haren lana sakonago aztertzea zuzendutako proiektuak. Proiektuak neurrira egiten dira, dena delako ikastetxearen espezializazioaren eta curriculumaren arabera. 2014an, urte osoko proiektu intentsiboa egin zen Euskadiko ikastetxe batekin, baita bi ikasketa-bidaia ere Madrilgo eta Bartzelonako beste ikastetxe batzuekin. Jarduera horietan guztietan 10etik 9,75eko gogobetetasuna dago batez beste.



B

BESTELAKO JARDUEN PROGRAMAZIOA

Museoa, aukeren eremua



Jarduera kulturalak

Museoko erakusketen eta hezkuntzaren arloko programazioaren osagarri, kulturako proiektuak eta jarduerak ere hartu ditu museoak edo/eta horiek egiten parte hartu du; modarekin zuzeneko lotura duten proiektuak edo kultura- edo gizarte-interesekoak izan dira beti:

- Plataforma Yoxlab
Modako ikus-entzunezkoak eta argazkiak museoan
2014/05/08
- Emanaldia: *8r amama*
2014/03/06
- Hitzaldia: *Festarako janzkiak azken 100 urteetan*
2014/05/27
- Garapenerako XXI. ELAN Euskadi Jardunaldiak
2014/05/21 – 2014/05/22
- Euskarazko Film laburren emanaldia
2014/05/29
- Euskadiko Ikasleen Orkestraren Kontzertua
2014/06/28
- City Street Festival 2014. Agatha Ruiz de la Pradaren desfilea
2014/09/28
- Donostia Fashion Week Industry 2014
2014/10/09 – 2014/10/10

Beste jarduera batzuk:

- Bertso-saioa. Getariako Udalarekin lankidetzan
2014/01/17
- Museoen Nazioarteko Eguna: Ateak zabaltzeko eguna
2014/05/18
- Delorean taldearen kontzertua. Txakolina JDren 25. urteurrena
2014/09/21

Jarduera profesionalak

Kanpoko hainbat erakundek ere erabili dituzte museoko eremuak askotariko lan-sektoreekin lotutako ekitaldiak egiteko.

Eraikin didaktikoko ataria, erabilera anitzeko aretoa, auditoriuma, ganbara eta ikasgelak hornituta daude; horrez gain, askotariko formatuak eta aukerak ere badituzte era guztietako ekitaldietara egokitzeko.

Hori horrela, museoak 2014an 5.000 erabiltzaile hartu ditu kanpoko erakundeek antolatutako zenbait ekitalditan. Besteak beste:

- Sariak emateko ekitaldiak eta urteurren-galak (4)
- Jardunaldi profesionalak (2)
- Batzarretako galako afariak (4)
- Enpresen bilerak (2)

B



KOMUNIKAZIOA / BISITARIAK

Ezagutzera eman

Komunikazioa

Museoko Komunikazio Sailaren zeregina Cristóbal Balenciaga Fundazioak sortu zenetik dituen helburuak betetzen ahalegintzea da. Xede hori betetzeko, bere gain hartu du museoaren, Fundazioaren eta Cristóbal Balenciagaren figuraren inguruko komunikazio orokorra, eta hiru lan-arlotan gauzatu du::

A. Prentsa eta komunikazio instituzionaleko kabinetea

- prentsaurrekoak (5)
- prentsa-oharrak (8)
- argitalpen nazional eta nazioartekoekiko harremanak (20)
- press trip-ei arreta ematea (10)

B. Webgunearen eta komunikabide sozialen bidezko komunikazioa

- Facebookeko lagunak: 7.105
- Twitterreko jarraitzaileak: 3.890
- Youtubeko kanala: 230 harpidedun / +/- 100.000 erreprodukzio
- Webgunean izandako bisitak: 393.936 bisita, 93.878 orrialde ikusita, bisitari berriak % 73 – returning-a % 23

Bisitariak

Cristóbal Balenciaga Museoak 37.500 bisitari izan ditu 2014ko ekitaldian. Aurreko urtekoekin alderatuz, beherakada handia egon da, beraz.

Eginiko aurreikuspen guztiak gainditu zituen bisitari kopuruak museoaren lehen 6 hilabeteetan (2011ko ekainetik 2011ko abendura). Aurretiko azterlanen arabera, urtean 40.000 pertsona inguruko merkatu potentziala zuen museoak, kokapen geografikoagatik; izan ere, zenbait herrigune handitatik gertu bada ere, Donostiatik (30 km) edo Bilbotik (70 km) adibidez, sarbide zailak eta ez-zuzenak daude haietatik. Sei hilabete horietan, ordea, 75.000 bisitari izan ziren, 60.000 hurrengo 12 hilabeteetan eta 45.000 2013an.

Beheranzko joera hori ez da aurten eten, aurreko urtearen aldean % 18ko jaitsiera izan baita. Inaugurazioaren efektua desagertu izanak ez ezik, museoaren egoera ekonomiko zailak ere eragin du atzerakada horretan. Horren ondorioz, % 15 murriztu behar izan dira museoaren zabalik egondako orduak iazko ordutegiarekin alderatuta; hori horrela, bisitari kopuruaren jaitsiera murrizketa horrekiko proportzionala izan da ia.

Horrez gain, diru-murrizketak eta museoaren barruko berregituraketa hizpide ere izan dituzte sarri hedabideetan, eta museoaren bideragarritasunari buruzko funtsik gabeko zalantzak piztu ditu horrek. Ondorioz, itundutako bidaia duten turistak alendu egin dira museotik, turoperatzaileek hara joatea baztertzen baitzuten ziurgabetasun-egoeragatik, eta horiek ziren, hain zuzen ere, aurreko urteetan museoaren gehien bisitatzen zutenak. Egoera hori arintzeko lanean ari gara gaur egun, museoaren hazkunde-bidean barneratu dadin.

Bisitari kopurua arian-arian murriztu den arren, museoaren erabiltzaile kopuruak gora egin du azken urteotan, nola hezkuntza-programetan hala ekitaldietan, museoaren ohiko programazioaren ondorioz. Horrelakoek bisitari egonkorragoak erakartzen dituzte, ingurutik gehienbat. Igoera nabarmena izan da, % 40 ingurukoa.



B

INFORMAZIO EKONOMIKOA



Cristóbal Balenciaga Fundazioak txosten honetan azaldutako programaziora 186.000 euro bideratu ditu; % 66 erakusketak egiteko izan da, % 24 hezkuntzara zuzendu da, eta % 10, azkenik, bestelako kultur jarduerak egiteko erabili da.

Fundazioak museora bideratzen duen aurrekontu osoaren % 13 baino ez da zuzendu programaziora, haren jarduerari eta zerbitzuei lotutako egitura- eta inbertsio-beharrei erantzuteko zehazki.

Aurrekontu honen finantzaketaren % 78 Fundazioaren patronatua osatzen duten erakunde publikoek egindako ekarpenetatik dator; haren % 19, berriz, erakundeak berak sortutako diru-sarreretatik dator, eta gainontzeko % 3a babesle eta ekarpenetatik.

Gardentasuna

Ondoren honako informazio ekonomiko hau emango dugu: auditoretza-txostena, emaitzen balantzea eta kontu laburtua eta ekitaldian gauzatutako aurrekontua.

Egoeraren balantze laburtua

AKTIBOA	2014	2013
A. AKTIBO EZ-ARRUNTA	16.216.096	8.809.783
I. IBILGETU UKIEZINA	7.144.540	473.414
II. ONDAREAREN PARTE DIREN ONDASUNAK	5.815.935	4.667.829
III. IBILGETU MATERIALA	3.255.621	3.668.540
Eraikinak	1.161.783	1.187.600
Instalazio teknikoak eta bestelako ibilgetu ukiezina	2.093.838	2.480.940
B. AKTIBO ARRUNTA	569.534	385.951
II. IZAKINAK	-	6.108
IV. ZORDUN KOMERTZIALAK ETA KOBRATU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK	7.248	263.821
Bezeroak, salmentengatik eta zerbitzu-emateagatik	4.711	5.420
Beste zordun batzuk	2.537	258.401
VII. EPE LABURREKO PERIODIFIKATZEAK	-	24.364
VIII. ESKUDIRUA ETA BESTE AKTIBO LIKIDO BALIOKIDE BATZUK	562.286	91.658
AKTIBOA, GUZTIRA (A+B)	16.785.630	9.195.734
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2014	2013
A ONDARE GARBIA	15.675.583	8.205.115
A-1. FUNTS PROPIOAK	824.407	762.404
I.FUNDATZE-HORNIDURA	1.251.343	1.251.343
III.AURREKO EKITALDIETAKO SOBERAKINA	(488.939)	(519.724)
IV. EKITALDIKO SOBERAKINA (POSITIBOA EDO NEGATIBOA)	62.003	30.785
A-3. JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK, DOHAINTZAK ETA LEGATUAK	14.851.176	7.442.711
B PASIBO EZ-ARRUNTA	375.000	468.750
II.EPE LUZEKO ZORRAK	375.000	468.750
1. KREDITU-ERAKUNDEEKIKO ZORRAK	375.000	468.750
C PASIBO ARRUNTA	735.047	521.869
II. EPE LABURREKO HORNIDURAK	24.235	
III. EPE LABURREKO ZORRAK	132.666	136.626
1. Kreditu-erakundeekiko zorrak	94.830	95.321
3. Epe laburreko beste zor batzuk	37.836	41.305
VI. ARTZEKODUN KOMERTZIALAK ETA ORDAINDU BEHARREKO BESTE KONTU BATZUK	578.146	385.243
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA (A+B+C)	16.785.630	9.195.734

Emaitzen kontu laburtua

DESKRIPZIOA	2014	2013
ERAGIKETA JARRAITUAK		
1. ENTITATEAK JARDUERA PROPIOENGATIK LORTUTAKO DIRU-SARRERAK	1.309.572	1.402.556
A. Kideen eta afiliatuen kuotak	5.870	8.690
B. Erabiltzaileen ekarpenak	219.982	295.317
C. Ekit. emaitzan input. diru-laguntza, dohain. eta legatuak		2000
D. Ekit. emaitzan input. diru-laguntzak, dohain. eta legatuak	1.083.720	1.096.549
2. DIRUZKO LAGUNTZAK ETA BESTE	-	-
3. MERKATARITZA-JARDUERAKO SALMENTAK ETA BESTE SARRERA ARRUNT BATZUK	39.685	29.562
6. HORNIDURAK	(6.108)	(14,627)
7. USTIAPENeko BESTELAKO DIRU-SARRERAK	14.195	8.257
8. LANGILERIA-GASTUAK	(234.812)	(460,499)
9. USTIAPENeko BESTELAKO GASTUAK	(1.064,901)	(908,714)
10. IBILGETUAREN AMORTIZAZIOA	(907.201)	(485,820)
11. EKITALDIKO EMAITZARA INTSUL. DIRU-LAG., DOHAIN. ETA KAPITAL LEGATU	905.048	484,083
14. BESTE EMAITZA BATZUK	16.818	1,368
A. JARDUERAKO SOBERAKINA	72.296	45,531
15. DIRU-SARRERA FINANTZARIOAK	124	212
16. GASTU FINANTZARIOAK	(10,417)	(14,958)
B. ERAGIKETA FINANTZARIOETAKO SOBERAKINA	(10.293)	(14,746)
C. ZERGEN AURRETIKO SOBERAKINA	62.003	30,785
20. MOZKINEN GAINEKO ZERGA	-	-
D. EKITALDIKO SOBERAKINA	62.003	30,785

Aurrekontuaren gauzatzea

GASTUAK/INBERTSIOAK (JARDUERA PROPIOA)

	GAUZATUA
Laguntzen eta bestelakoen ondoriozko gastuak	
A) Diruzko laguntzak	-
B) Diruzkoak ez diren laguntzak	-
C) Elkarlanen eta gobernu-organoen ondoriozko gastuak	-
Bukatutako produktuen eta fabrikatzen ari direnen izakinen aldakuntza	-
Hornidurak	6.108
Langileria-gastuak	234.812
Jarduerako beste gastu batzuk	1.064.901
Ibilgetuaren amortizazioa	907.201
Ibilgetuaren balio-galera eta besterentzearen emaitza	-
Gastu finantzarioak	10.417
Tresna finantzarioen arrazoizko balioaren aldakuntza	-
Truke-aldeak	-
Tresna finantzarioen balio-galera eta besterentzearen emaitza	-
Irabazien gaineko zergak	-
Gastuen guztizko partziala	2.223.439
Ibilgetua eskuratzea (ondare historikoko ondasunak salbu)	-
Ondare historikoko ondasunak eskuratzea	-
Komertzialak ez diren zorrak kitatzea	93.750
Baliabideen guztizko partziala	93.750
TOTALA	2.317.189

DIRU-SARRERAK

	GAUZATUA
Ondaretik eratorritako errentak eta beste sarrera batzuk	905.048
Jarduera propioetako salmentak eta zerbitzuen prestazioak	234.177
Merkataritza-jardueren ondoriozko diru-sarrera arruntak	39.685
Sektore publikoaren diru-laguntzak	1.083.720
Ekarpen pribatuak (babesletza eta kideen kuotak)	5.870
Beste mota batzuetako diru-sarrerak	16.942
LORTUTAKO DIRU-SARRERAK, GUZTIRA	2.285.443

Auditoretza txostena



1

INFORME DE AUDITORIA INDEPENDIENTE DE CUENTAS ANUALES

ABREVIADAS

A La Junta del Patronato de:

FUNDACION CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA

Informe sobre las cuentas anuales abreviadas

1. Hemos auditado las cuentas anuales abreviadas adjuntas de la sociedad **FUNDACIÓN CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA**, que comprenden el balance abreviado al 31 de diciembre de 2014, la cuenta de resultados abreviada y la memoria abreviada correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

Responsabilidad de los administradores en relación con las cuentas anuales abreviadas

2. La Dirección de la fundación es la responsable de formular las cuentas anuales abreviadas adjuntas, de forma que expresen la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera y del excedente de **FUNDACIÓN CRISTOBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA** de conformidad con el marco normativo de información financiera aplicable a la entidad en España, que se identifica en la Nota 2 de la memoria adjunta, y del control interno que consideren necesario para permitir la preparación de cuentas anuales libres de incorrección material, debida a fraude o error.

Responsabilidad del auditor

3. Nuestra responsabilidad es expresar una opinión sobre las cuentas anuales abreviadas adjuntas basada en nuestra auditoría. Hemos llevado a cabo nuestra auditoría de conformidad con la normativa reguladora de la auditoría de cuentas vigente en España. Dicha normativa exige que cumplamos los requerimientos de ética, así como que planifiquemos y ejecutemos la auditoría con el fin de obtener una seguridad razonable de que las cuentas anuales están libres de incorrecciones materiales.
4. Una auditoría requiere la aplicación de procedimientos para obtener evidencia de auditoría sobre los importes y la información revelada en las cuentas anuales. Los procedimientos seleccionados dependen del juicio del auditor, incluida la valoración de los riesgos de incorrección material en las cuentas anuales, debida a fraude o error. Al efectuar dichas valoraciones del riesgo, el auditor tiene en cuenta el control interno relevante para la formulación por parte de la entidad de las cuentas anuales, con el fin de diseñar los procedimientos de auditoría que sean adecuados en función de las circunstancias, y no con la finalidad de expresar una opinión sobre la eficacia del control interno de la entidad. Una auditoría también incluye la evaluación de la adecuación de las políticas contables aplicadas y de la razonabilidad de las estimaciones contables realizadas por la dirección, así como la evaluación de la presentación de las cuentas anuales tomadas en su conjunto.

Sayma Auditores, S.L.
 Avda. de la Libertad, 10 - 7º
 20204 Donostia - San Sebastián
 Tel: 943 44 01 30 Fax: 943 44 01 37
 E-mail: auditores@sayma.es www.sayma.com

a member of International,
 a world-wide network of independent accounting firms and business advisers.

5. Consideramos que la evidencia de auditoría que hemos obtenido proporciona una base suficiente y adecuada para nuestra opinión de auditoría.

Opinión

6. En nuestra opinión las cuentas anuales abreviadas adjuntas expresan, en todos los aspectos significativos, la imagen fiel del patrimonio y de la situación financiera de la sociedad FUNDACIÓN CRISTÓBAL BALENCIAGA FUNDAZIOA a 31 de diciembre de 2014, así como del excedente correspondiente al ejercicio anual terminado en dicha fecha, de conformidad con el marco normativo de información financiera que resulta de aplicación y, en particular, con los principios y criterios contables contenidos en el mismo.

Informe sobre otros requerimientos legales y reglamentarios

7. La memoria de actividades fundacionales adjunta, contiene las explicaciones que los Órganos de Gobierno consideren oportunas sobre las actividades fundacionales realizadas durante el ejercicio para cumplir con su fin fundacional y no forma parte integrante de las cuentas anuales. Hemos verificado que la información contable que contiene la citada memoria de actividades concuerda con las de las cuentas anuales del ejercicio 2014. Nuestro trabajo como auditores se limita a la verificación de la memoria de actividades con el alcance mencionado en este mismo párrafo y no incluye la revisión de información distinta de la obtenida a partir de los registros contables de la Entidad.

SAYMA AUDITORES


Fdo: Andoni Arzállus Mendiluce

San Sebastián a 13 de mayo de 2015.